

HERNANI / Neguko literatur solasaldiak asteazkenean hasiko dira Dentro de mi lanarekin

Euskarazko eta gaztelaniazko hiruna lan aztertuko dira: Connemara gure bihotzetan, Korapiloak, Sua nahi, Mr. Churchill?, Dentro de mi, Reflejos en un ojo dorado eta Primavera sombría. Martxoan amaituko da.

Liburuak aukeratuta, neguko literatura solasaldiak martxan izango dira asteazkenetik aurrera martxoaren 16ra arte. Euskarazko eta gaztelaniazko hiruna lan aztertuko dira. Lehenengoa gaztelaniaz izango da, Doris Lessingen Dentro de mi. Dinamizatzailea Jose Luis Cancho izango da. Irakurri duenak irakurritakoari buruz hitz egiteko gogoia badu, liburutegira azaltzea besterik ez du asteazkenean, 19:30etan.

Connemara gure bihotzetan hilaren 26an

Landuko den hurrengo liburua euskaraz izango da, Julen Gabiriaren Connemara gure bihotzetan. Urtarrilaren 26an izango da, asteartean. Dinamizatzaile lanetan Ane Mayozen ariko da. Ohi bezala, 19:30etan liburutegian. Otsailean beste liburu bana izango dira hizketagai: otsailaren 10ean, Carson McCullerseren Reflejos en un ojo dorado, gaztelaniaz, eta otsailaren 16an, Jasone Osororen Korapiloak, euskaraz. Eta martxoan beste hainbeste: martxoaren 10ean, Unica Zürnen Primavera sombría, gazteleraz, eta martxoaren 16an, Koldo Izagirrereren Sua nahi, Mr. Churchill?, euskaraz.

Areto literarioa ostegunean

LH 4ko ikasleentzat Labirintoaren erbestean izeneko literatur jolasa izango da Udaletxeko areto nagusian, ostegunean, eta baita otsailaren 10ean ere.